




**SALUD MENTAL  
BURU OSASUNA**  
EUSKADI *Fedeafes*

## **2030 AGENDA, GJHak ETA BURU OSASUNA EUSKADI ELKARTE-MUGIMENDUA**



Elkarte hauekin  
lankidetzan egindako  
dokumentua:



Laguntzaileak:

**EUSKO JAURLARITZA**

BERDINTASUN, JUSTIZIA  
ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA



**GOBIERNO VASCO**

DEPARTAMENTO DE IGUALDAD,  
JUSTICIA Y POLÍTICAS SOCIALES



## 2030 AGENDA ETA GJHak BURU OSASUNA EUSKADIN

2030 Agenda eta Garapen Jasangarrirako Helburuak (GJH) 2015ean onartu zituen Nazio Batuen Erakundeak, pertsona guztientzako mundu bidezkoagoa eta hobea egiteko helburuarekin. Agendak eta GJHei pertsona, entitate eta erakunde guztioi eragiten digute. 17 GJH daude:



## BURU OSASUNAK ERAGINA DU GJHetan

Buru Osasuna Euskadin eta bere elkarrekin modu naturalean gauzatzen dugu GJHei konpromisoa. Elkarrekin, alde aurretik, sakontasun eta inplikazio handiko bidea egin dute Garapen Iraunkorreko Helburu jakin batzuetarako oso garrantzitsuak diren ekintzetan. Esan dezakegu 2030 Agendaren goiburua, "Inor atzean ez uztea", elkarrekin mugimenduaren DNAn bertan dagoela.

### 2030 Agendaren goiburua: 'Inor atzean ez uztea'

Ikusi [www.fedeafes.org](http://www.fedeafes.org) webgunean argitaratutako 'Buru Osasuna Euskadi federazioko elkarrekin eta Garapen Jasangarrirako Helburuak' dokumentua

## BURU OSASUNA EUSKADIK GJHei EGINDAKO EKARPEN NAGUSIETARIKO BATZUK

### 3 OSASUNA ETA ONGIZATEA

- Buru osasun arazoak dituzten pertsonentzako eta haien familientzako programen, zerbitzuen eta baliabideen eskaintza zabala eta askotarikoa abian jartzea (hala nola eguneko zentroak, zentro okupazionalak, egoitza-baliabideak, bizitza independentea babesteko programak, aisialdi-programak, laguntza psikologikoko programak eta abar).
- Kalteberatasun-egoeran dauden kolektiboentzako programak (emakumeak, haur eta gazteak, espetxeetan dauden pertsonak, etab.)
- Sentsibilizazio-kanpainak, herritarren artean buru osasuna sustatzeko.
- Familientzako programak.
- Senideei autozaintetan laguntzea.
- Suizidioa prebenitzeko berariazko programak abian jartzea.
- Hainbat ikerketa eta argitalpen, osasun mentaleko arazoak dituzten pertsonen eta haien bizi-kalitatea hainbat ikuspegitatik hobetzeari buruzkoak (emakumea, haur eta gazteak, aisialdia, bizi-kalitatea, etab.).
- Buru osasun arazoei buruzko jardunaldi eta hitzaldiak.

## 1 POBREZIA DESAGERRARAZTEA

- Buru Osasuna Euskad federazioko elkarteek baliabide urriak dituzten pertonekin lan egiten dute. Gainera, buru osasun arazoak dituzten pertsona jakin batzuen gizarte-bazterketa eta pobrezia saihesteko programak sustatzen dituzte.
- Erabiltzaileen eskura jartzen diren zerbitzuak doan ematen dira, baliabiderik ez duten eta zerbitzua eskuratu ezin duten pertsoneri sarbidea bermatzeko.

## 4 KALITATEZKO HEZKUNTZA

- Proiektuak, buru osasun arazoak dituzten pertsonen enplegurako beharrezko gaitasunak eskura ditzaten.
- Buru osasun arazoak dituzten haur, nerabe eta gazteei buruzko azterlanak eta ikerketak egin eta hezkuntza-esparruan hobekuntzak proposatzea.
- Ikastetxeetan programak gauzatzea, buru osasun arazoak prebenitzeko eta sentsibilizatzeko.
- Ikasketak utzi dituzten pertsoneri laguntzea, etab.
- Buru osasun arazoak dituzten adingabeentzako beharrezko laguntzen aldarrikapena egitea.
- Landa-ingurunean ikastetxeetako programetan suizidioak prebenitzeko proiektu pilotua.

## 5 GENERO BERDINTASUNA

- Profesionalentzako genero-presakuntzako berariazko programak.
- Emakundek Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako erakunde laguntzaile aitortzea.
- Buru osasun arazoa duten emakumeen aurkako indarkeriari buruzko ikerketa espezifikoa.
- Espainiako Osasun Mentaleko Konfederazioko Emakumeen Sarea.

## 8 LAN DUINA ETA HAZKUNDE EKONOMIKOA

- Enplegu-programen bidez, zailtasunak dituzten pertsonentzako enplegu-aukerak sortzea.
- Buru osasun arazoak dituzten pertsonen enpleguari buruzko foroak eta ekitaldiak egitea.
- Enplegu-prospekzioak enpresetan, kolektiboko pertsoneri enplegu normalizatua eskuratzen laguntzeko, lana sustatzeko programen bidez.
- Elkartrukea enpresekin, buru osasun arazoak dituzten pertsonen kontratazioa sustatzeko (lan-gosariak enpresekin, etab.).
- Enplegu-nitxo berriak sortzea, hala nola nekazaritza ekologikoa, buru osasun arazoak dituzten pertsoneri enplegua emateko.

## 10 DESBERDINTASUNAK MURRIZTEA

- Buru nahasmenduei lotutako estigma (diskriminazioa, eskubideen urraketa eta desberdintasuna eragiten dituena) desagerrarazteko programak, ekintzak, ikerketak, aldarrikapenak eta sentsibilizazioa.
- Eskubideen defentsa, sentsibilizazioa, eskubide-urraketen salaketa, bizitza independentea izateko eskubidearen sustapena.
- Gizarteratze-proiektuak hainbat eremutan: enplegua, komunitate, etab.

## 16 BAKEA, JUSTIZIA ETA INSTITUZIO SENDOAK

- Justiziara berdintasunez iristeko kezka, irisgarritasun unibertsalaren (kognitiboa ere bai) beharrezko baldintzak bermatuz eta laguntza doituak emanez, beharrezkoa denean.
- Entitateetan kode etikoa eta jokabide-kodea ezartzea.

## 17 HELBURUAK LORTZEKO ALIANZAK

- Herri-administrazioarekin lankidetzan aritzea: autonomia-, lurralde- eta udal-administrazioarekin.
- Hainbat elkarte-saretan parte hartzea, auzo-elkarteekin, unibertsitateekin eta abarrekin aliantzak eta lankidetzak egitea.